



# Hezkuntza eskubidea bermatzeko programa

**ESKOLAGABETZEA eta ESKOLA-ABSENTISMOA**  
ERAUZTEA BIZKAIKO LURRALDEAN



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



HEZKUNTZA UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Argitaratzen du:


EUSKO JAURLARITZA. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Gizartekintza Saila

EUDEL. Euskadiko Udalen Elkartea

# Hezkuntza eskubidea bermatzeko programa

Eskolagabetzea eta eskola-absentismoa  
erauztea Bizkaiko lurraldean





## HITZAURREA

7

# 1

### PROGRAMA

9

- 1.1. Programaren aurkezpena
- 1.2. Eskolagabetzea eta eskola-absentismoa: hezkuntzari, babesgabeziari eta gizarteari dagokion arazoa
- 1.3. Arrazoiak
- 1.4. Arazo horren garrantzia Bizkaian
- 1.5. Arazo honetan inplikaturako erakundeen esku hartze koordinatuaren beharra

# 2

### LEGE ESPARRUA

19

- 2.1. Hezkuntzarako eskubidea: eskolatzea eta eskolara joan beharra; oinarritzko tresnak eraginkorrak izan daitezen
- 2.2. Hezkuntzarako eskubidearen eraginkortasuna gauzatzen eta eskola absentismoa erazten saiatu behar duten subjektuak

# 3

### ESKU HARTZEKO PROGRAMA

29

- 3.1. Honako termino hauen definizio operatiboa: eskolagabetzea eta eskola absentismoa
- 3.2. Eskolagabetzea eta eskola absentismoa erabat erazteko lortu beharreko helburuak
- 3.3. Esku hartzea gidatzen duten printzipioak
- 3.4. Erakunde parte hartzaileen jarduera
- 3.5. Esku hartzearen fluxu-diagrama
- 3.6. Programaren iraupena
- 3.7. Programaren ebaluazioa

# 4

### ERANSKINAK

45

- 4.1. Jakinarazteko fitxa eredua
- 4.2. Esku hartzeko plana egiteko jarraibideak
- 4.3. Bideratzeko eskutitz ereduak
- 4.4. Hileko absentismoa erregistratzeko orria





Badakigu nahitaez eskolatzeko adinean dauden haur eta nerabeei hezkuntzarako etorkizuna bermatzea garrantzitsua eta premiazkoa dela, haien etorkizunerako. Era berean, badakigu eskola-absentismoa eta eskolagabetzea bazterkeria eta alboratze sozialean eragiten duten faktoreak direla. Adingabeen garapen pertsonala, akademikoa eta profesionala kolokan jartzen duten neurrian, 2003-2004 ikasturtean abian jarri zen "Hezkuntza eskubidea bermatzeko programa. Eskolagabetzea eta eskola-absentismoa erauzteko Bizkaiko lurraldean".

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza saila eta Euskadiko udalen EUEDEL elkartearen artean landu eta adostutako programa horren helburua hezkuntza eta gizarte esparru guztietako langileen ahaleginak biltzea zen. Bere baitan prebentzio eta antolakuntza mailako neurriak eta jarduerarako hitzartutako protokoloa abian jartzea zeuden.

Ordutik hona, inplikaturako profesional guztien lanari, koordinazioari eta ahaleginari esker, arazoaren larritasuna zenbatekoa den zehaztu ahal izan da, eta, garrantzitsuagoa dena, esku hartu ahal izan da kasu jakin bakoitzean, jokabide horiek zuzentzeko beharrezko neurriak hartuz.

Hala ere, bete-beteko ahaleginak egin arren, arazoa erabat konpontzetik urruti gaude oraindik. Programaren jarraipen batzordearen txostenetan agertzen den bezala, orain ere kezagarria da eskola-absentismoa eta eskolagabetze kasuen kopurua, eta, horrenbestean, desagerrarazteko beharrezkoa da elkarrekin lan egiten jarraitzea.

Beste alde batetik, urte hauetan gizartea aldatu egin da, behar berriak sortu dira, arazo berriak, familia, eskola, haurtzaroa eta nerabezeroaren


dimensio soziala, erakundeak eta abar ulertzeko modu berriak... Gizartea eraldatu egin da, eta harekin batera baita legedia eta hura garatzen duen araudia ere.

Aldaketa horien eta urte hauetan zehar metatutako esperientziaren ondorioz, beharrezkoa izan da programa eta bere jarduera protokoloak berraztertu eta eguneratzea, erakundeen artean koordinazio hobea eta eraginkortasun handiagoa lortzeko. Helburua jokabide absentistak desagerraraztea da, ikasleen garapen pertsonala, soziala eta akademikoa sustatuz eta gizarte-bazterkeria eta alboratze egoerak ekiditeko laguntza emanez.

Azken batean, hezkuntza eskubidea bermatzeko erakundeen arteko lan koordinatua hobetzen jarraitu nahi dugu, gizarteratze handiagoa bideratzeko eta programa honen helburu diren haur eta nerabeen bizi-kalitatea hobetzeko.

*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua  
Gizarte Ekintzako Foru diputatua  
EUDELeko presidentea*





Programa





## 1.1. Programaren aurkezpena

Jarraian aurkeztuta dagoen programaren hasieran eskolagabetzearen eta eskola-absentismoaren arazoa aztertu da, arazo horrek bi esparrutan eragiten duela kontuan hartuta: gizartea eta hezkuntza. Arazo horren balizko arrazoiei eta Bizkaiko lurraldean izan duen garrantziari buruzko gogoeta egin da, eta arazoan inplikaturako erakundeen esku-hartze koordinatuaren beharra finkatu.

Arazo hori kokatzen duen lege-esparrua zehaztu du programak, eta eskolagabetzea eta eskola-absentismoa terminoen beharrezko definizio operatiboarekin jarraitu.

Ondoren, eskolagabetzea eta eskola-absentismoa erazteko lortu beharreko helburuak azaltzen ditu, eta esku hartzeko edozein proposamenek kontuan izan behar dituen printzipioak ere jaso ere bai.

Aurrerago, esku hartzen duten erakundeek garatuko dituzten jarduketak biltzen ditu: Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura Saila, udalak eta Bizkaiko Foru Aldundia. Jarduketa horien artean, besteak beste, egokiak diren neurri eta protokoloak txertatu dira.

Horrez gain, esku hartze koordinatuari buruzko fluxu-diagrama ere badago. Azkenik, erantsita daude eskolagabetzea eta eskola-absentismoaren aurkako esku hartzearen fase bakoitzean erabili ahal diren ereduak.

Programa honek lau ikasturteko iraupena izango du, eta inplikaturako erakundeek berariaz hitzartuz gero, luzatu egin daiteke. Programaren bidez, erakunde horiek derrigorrezko eskolaldiko adinean dauden adingabe guztien eskolatzeko eskubidea betearazi nahi dute Bizkaiko lurraldean.



## 1.2. Eskolagabetzea eta eskola-absentismoa: hezkuntzari, babesgabeziari eta gizarteari dagokion arazoa

Hezkuntzarako eskubidea gizarte eboluzionatu eta demokratikoekin lotutako eskubidea da.

Oinarrizko eskubidea izanik, halakotzat aitortzen dute nola nazioarteko erakundeek hala gure lurralde historikoan adingabea hezteko eta hari babes soziala emateko indarrean dagoen legeriak. Eskubide hori erabiltzeko bermeak eskubide eta eginbehar bihurtzen du sei urtetik hamasei urtera bitartean (derrigorrezko irakaskuntza- eta eskolatzeko-aldia).

Eskubide horri esker, pertsonak erabat garatu ahal dira, kultura arloan aberastea lor dezakete, gabezia fisikoak, psikikoak nahiz gizarte maila edo talde bateko kide izateak eragin ditzakeen gabeziak oreka ditzakete, eta gizarte-egituran aurrera egin dezakete. Aldi berean, eskubide hori betetzen den gizartean gatazka gutxiago izaten dira, eta gaitasun, lehiakortasun eta prestigio handiagoak lortzen dira; azken batean, ongizate handiagoa. Hori da edozein komunitatek lortu nahi duen helburua.

Gizarte osoari dagokio, herritarrei eta administrazio publikoan ordezkari dituztenei orobat, haur eta nerabeen eskubideak babestea.

Haurtzarora eta nerabezarora babesteko esparruan gaur egun indarrean dagoen legeriak arrisku eta babesgabetasun egoeratzat hartzen dituenak definitzen ditu. Egoera horiek balioesteko tresnak onesten dituen 230/2011 dekretuak balioztatu beharreko alderdien artean prestakuntza beharrekiko arduragabekeria jasotzen du.

Testuinguru horretan, eskolagabetzeak eta eskola-absentismoak hezkuntzarako eskubidea zapaltzen dutela uler daiteke. Halaber, gizarte-bazterketarako faktore dira, adingabeen garapen akademikoan eta profesionalean eragiten baitute eta, beraz, komunitatean integratzeko duten aukeran; horrez gain, bi jokabide horiek badira gizarteko gatazkak areagotzen dituzten faktoreak ere.

Eskola-absentismoa oro har oso errealitate esanguratsua da egoki gizarteratu gabeko edo alboratutako eremu metropolitarretan, batik bat etorkin, gutxiengo etniko eta familia desegituratuen artean.

Horrela, bada, eskolagabetzea eta absentismoa ez dira hezkuntzaren esparruko arazoak soilik, gizarte-arazo nabarmenak ere badira.

Horrela, eskolagabetzearen eta eskola-absentismoaren aurka jardunez gero, alde batetik, hezkuntza-arazo bati erantzuten zaio, pertsonen garapen egokia ahalbidetzen edo berreskuratzen delako, eta, bestetik, aldi berean gizarte-arazo bati ere erantzuten zaio, gabezia, arrisku eta gizarte-gatazka egoerei aurea hartuz ez ezik, haiek etetea ere lortzen delako.

Hezkuntzan eta gizarte-laguntzan esku hartzen duten erakundeen eguneroko lanak, indarrean dagoen legeriak eta eskolagabetzearen eta

eskola-absentismoaren arloetan egindako ikerketek argi eta garbi erakusten dute: botere publiko guztien esku-hartzeak hezkuntzarako eskubidea bermatu behar du. Azpimarratu beharra dago esku-hartze hori benetan eraginkorra izan dadin eta duen helburua bete dezan, ezinbestekoa dela bertan parte hartzen duten erakunde guztien ekintzak koordinatzea (Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura Saila, Foru Aldundia, udalak, Fiskaltza...)

Esku-hartze koordinatu hori programa baten bidez garatu behar da, eta programa horrek, besteak beste, honako hauek hartu ditu barnean: gai honetan adingabeen egoera hautemateko eta egoera horren jarraipena egiteko aukera emango duen erakundearen erregistro- eta komunikazio-sistema bat abiarazi behar da, eta egin beharreko ikerketak egin behar dira; adingabeekin eta horien familiekin edo legezko ordezkariekin jarduteko berariazko proiektuak garatu behar dira ikastetxeetan eta inplikaturako udal-zerbitzu nahiz foru-aldundietako zerbitzuetan. Biztanleria sentsibilizatzeko kanpainak egin behar dira, eta esku-hartzeak etorkizuneko profesionalen prestakuntzan nahiz eskolagabetzea eta eskola-absentismo larriari eta onartuari erantzuteko zigor-izaera handiagoko neurriak hartu behar dira



### 1.3. Arrazoiak

Eskola-absentismoaren arrazoiak bila hasita, gaiari buruzko azterlanek eta kontsultatutako irakasleek askotariko arrazoiak identifikatzen dituzte. Eskola-absentismoko kasu askotan arrazoi horietako bat baino gehiago elkartzen dira.

**1. Inguruarekin lotutako arrazoiak:** kideen taldeko arau eta balioek absentismora bidera dezakete ikaslea. Gabezia bizi den gizarte-ingurua, zenbait hiri-ingurutan, esate baterako, erabakigarria izan daiteke eskolara ez joateko. Horrez gain, baztertutako talde batzuk gizarteratzea zailtzen duten jarrerak ere bai.

**2. Eskolarekin lotutako arrazoiak:** metodo indibidualistak eta lehiakorrek erabiltzea, auzoan edo udalerrian integratu gabea izatea, irakasle taldeak adostu eta bereganatutako proiektu pedagogikorik ez izatea, ikasleen arteko taldekatzeak arraza edo bazterkeriako estereotipoek baldintzatzea, ikastetxeko irakasleen egoera ezegonkorra izatea, etab. Halaber, aipagarria da haurrak bere ikasgelako mailara egokitzeke izan dezakeen gaitasun falta, edo ikastetxeak haurren egoerara egokitzeke

izan dezakeena, besteak beste; antolamendu- eta koordinazio-sistemak, irakasteko jarrera eta estilo desberdinak, elkarrekin bizitzeko eta ikasteko giroa, ikasgeletan eta ikasgeletatik kanpoko giroa; dimentsio intelektuala dimentsio soziala, afektiboa, estetiko edo mugitze-dimentsioaren gainetik azpimarratzen duen eskola-kultura...

**3. Familiarekin lotutako arrazoiak:** Badira absentismoa bideratzen duten familia-faktoreak: familia-gabezia, egoera ekonomiko zailak, etxean baliabide-eskasia izatea, familiako harreman gatazkatsuak, toxikomaniak eta horiekin lotutako arazoak, prostituzioa, lan mota jakin batzuk -kalez kaleko salmenta, adibidez-, mugikortasun geografikoa, delinkuentzia, espetxea, etab. Oro har, maila sozioekonomikoa, kulturala, akademikoa, zenbait familiak seme-alaben ikasketen aurrean agertzen duten interes falta, seme-alaben eskola-ikaskuntzen aurrean dituzten itxaropenak, eskola-balioen aurreko jarrerak... Gehiegizko babes eta, beste muturrean, arduragabekeriak, utzikeriak edo adingabearen aurkako tratu txar fisiko edo psikikoen zantzuk. Familia-ospakizun garrantzitsuak, etxeko eguneroko bizitza egituratzeko ohiturarik eza, gurasoen zailtasun psikologikoak edo autoritate-gabezia, gurasoen osasun-arazoak, adingabeek etxeko antolamenduan edo ekonomian parte hartzeko beharra edo ohitura, adingabeen ezkontzak...

**4. Haurrekin edo gaztearekin lotutako arrazoiak:** autoestimua baxua, gaitasun falta izatearen sentimendua, baztertuta sentitzea edo balioesten ez dutela sentitzea, nahaste psikologikoak eta psikiatrikoak, aurreko prestakuntza akademiko txarra, aurreko emaitza akademiko txarrak, osasun fisiko ahula, irakasleekin edo tutorearekin bat ez datorrela sentitzea, ezarritako arauetara aurre egitea (nerabe aurrekoetan eta nerabeetan), talde edota ikastetxeko "kidetza" sentimendu falta...

**5. Beste arrazoi batzuk,** aurrekoak osatzen eta batzuetan larriagotzen dituztenak: genero-arrazoiak (neskek ikasteko premiarik ez dagoela uste izatea) eta kultura-arrazoiak (ijitoen etniako familia batzuk, esaterako, eskolatzeari uko egiten diote batzuetan, sinesten dutelako familiaren eta gizarte-taldearen bitartez badutela nahikoa baliabide neska edo mutikoa taldean gizarteratu eta integratzeko).

Arazoi ugartasun horrek pentsarazten digu eskola-absentismoa eta eskolagabetzea gainditzeko erantzunak pertsonalizatzeko beharra dagoela. Jokabide berean hainbat arrazoi batera agertzeak (pertsonalak, familiakoak, eskolakoak, gizartekoak) inplikaturako erakundeak modu koordinatuan jardun daitezela eskatzera garamatza berriro, guztien artean bi jokabide horiek eragiten dituzten arazoei konponbidea bilatzeko.



## 1.4. Arazo horren garrantzia Bizkaian

Gure lurralde historikoak ere ezagutzen ditu eskolagabetzearen eta absentismoaren arazoak. 2003. urtetik programa hau garatu izanak arazoaren egiazko dimentsiora hurbiltzen gaituen datu-biltze zehatza ahalbidetu digu, eta bide batez azken urteetako eboluzioa ezagutzeko aukera eskaini.

Orain arte erabilitako eskola-absentismoaren definizio operatiiboari lotuta eskuratutako datuak dira. Ikasturteko egunen %20an justifikatu gabe hainbat arrazoigatik eskolara joaten ez diren ikasle guztiak hartzen dituzte kontuan, ez joatea ikasturte osoan zehar hilabete batean bakarrik gertatu arren. Datu horien arabera, datuak sistematikoki biltzen hasi ziren 2003-2004 ikasturtean, eta orduan 1.074 absentismo kasu izan ziren; Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen %1,2 guztira. Ikasturtez ikasturte, programan aurreikusitako jarraipen batzordeak egindako urteroko txostenetan jaso izan den moduan, kopuruak gorantz egin du, eta 2013-2014 ikasturtean 1.596 kasu izatera iritsi da (%1,5).

Harrigarria gerta liteke eskola-absentismoaren jarraipena egiteko asmoa zenbat eta aurrerago joan, datuak orduan eta larriagoak izatea. Izan litezkeen arrazoietakoa bat kontrol-tresnak gero eta hobeak izatea da, igoera horretan eragina izan dezaketen beste aldagai batzuk ahaztu gabe. Horrek guztiak arazoaren arrazoiak hobeto aztertzen jarraitzera behartzen gaitu, ekidin ahal izateko bitartekoak jarri ahal izateko.

Datu horien analisi zehatzago eta xeheagoa eginez, aintzat hartu behar da zuzendutako eskola-absentismoa; hau da, ikasle absentista izateari uzten dioten ikasleen ehunekoa, edo, gutxienez, ikasturtearen azken hiruhilekoan zehar eskolara joaten direnena. Horri dagokionean, eboluzio positiboa izan da, kasuen %50 baino gehiago zuzentzea finkatuz joan baita, bai Lehen Hezkuntzako eskolaldian, eta baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoan ere.

Eskola-absentismoa zuzendu izanaren balizko arrazoiaren artean, arazo hori gainditzeko erakunde guztiek egindako esku hartzeak daude edo jokabide absentista eragin duen une jakin bateko egoeraren araberako faktorea desagertzea.

Bestalde, metatutako absentismoa izan da kontuan hartu den beste adierazle bat; hots, ikasturtean zehar izandako eskolatze-hutsegiteen ehunekoa. Arazoaren dimentsiorik larriena eskola-ikasturtean zehar egutegiaren %75

baino gehiagoan joaten ez den ikasleen ehunekoan islatzen da; ia ikasturte osoan zehar mantentzen denean, alegia. Azken ikasturte hauetan zehar, ehuneko hori nabarmen jaisten joan da.

Dena den, arazoaren dimentsiorik larriena nabarmen jaitsi bada ere -ikasle absentista guztien %2 izatera iritsi gabe-, eta eskola-sistema osoaren ikuspegitik nahiko txikitzat har daitekeen arren, banakako ikuspegitik begiratuta ez da beste hainbeste gertatzen. Izan ere, eskola-porrota eragiten duen egoera baita pertsona horiek etorkizunean gizarte-bazterkeria jasatera eraman ditzakeen arrazoietakoa bat.



## **1.5. Arazo honetan inplikaturako erakundeen esku hartze koordinatuaren beharra**

Eskolagabetzearen eta eskola-absentismoaren arazoak hezkuntzaren eta gizartearen esparruak hartzen ditu, eta, zenbaitetan, esparru judiziala ere ukitzen du; lehen aipatu dugunez, hainbat arrazoi egon daitezke arazo hori gertatzeko: pertsonalak, familiarekin lotutakoak, eskolarekin lotutakoak edo gizartearekin lotutakoak. Arazo handia dela kontuan hartuta, administrazioek emandako erantzun partzialak ez dira nahikoa.

Gure erkidego honek asmo handiko helburu beharrezko eta premiazkoa lortu nahi du: hezkuntzarako eskubidea bermatzea. Eta helburu hori lortzeko borondatea eta aukerak ditugunez, esparru horretan esku hartzen duten guztien arteko koordinazioa ezinbestekoa da.

Koordinazioa beharrezkoa izateaz gain, derrigorrezkoa ere bada, legeak hala ezartzen baitu; aurrerago, "lege-esparrua" deritzon atalean, modu argian azaldu dugu hori.

2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, honako hau jasotzen du 7. artikuluan: "Organismo, entitate eta erakunde publiko eta pribatuek elkarlanean jardun behar dute, eta koordinatu egin behar dituzte beren jardunak, haurrei eta nerabeei arreta koherente, antolatua eta integrala eskaintzeko; jarduteko modu horrek babesgabetasun-egoerei errazago erreparatzea du helburu, esku-hartze eraginkorragoak ahalbidetzea eta baliabideen erabilera arrazoizkoagoa izatea".



Nolanahi ere, koordinazio hori ez da mugatu behar zerbitzu edota erakundeen artean aldez aurretik finkatutako koordinazio-protokoloak aplikatze hutsera. Hori eginez gero, kasuak etengabe bideratzen jarraitze hutsean gera daiteke auzia, eta beti ezin da ekidin pertsona noraezean geratzea. Erakundeen artean finkatutako elkarlanerako hitzarmenei dagokien antolakuntza esparrutik, sareko lanaren ezaugarria profesionalak finkatzen duten lankidetzaren formalizatzea da; guztientzako kasu bakoitzari erantzutetik abiatuta. Banakako planak osatzen dira, zerbitzuen artean arautzeko eta bitartekaritza lanak egiteko elementu bezala eragingo duten erreferentzia argi eta partekatuekin.

Programa honen helburua asmo berean inplikaturako erakunde guztiak koordinatzeko bideak hobetzea eta sistematizatzea da; asmo edo helburu hori, jakina, hezkuntzarako eskubidea gauzatzen dela bermatzea da





2

Lege esparrua





## 2.1. Hezkuntzarako eskubidea: eskolatzea eta eskolara joan beharra; oinarrizko tresnak eraginkorrak izan daitezten

- ▶ Hezkuntzarako eskubidea pertsonaren oinarrizko eskubideetako bat da, eta Konstituzioaren 27. artikulua halakotzat jotzen du; hezkuntzarako eskubidea arautzeko Lege Organikoak garatu du ondoren eskubide hori..
- ▶ Eskubide hori erabiltzen dela bermatzeko, botere publikoek hainbat baliabide ezartzen dituzte; baliabide horiek ere lehenago adierazitako artikuluan jasota daude: Irakaskuntzaren programazio orokorra, erasandako sektore guztien parte-hartze eraginkorra, ikastetxeak sortzea eta oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa izan dadin erabakitzea.
- ▶ 2013ko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak aldatutako Hezkuntzari buruzko 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 4. artikuluan jasotakoaren arabera, oinarrizko irakaskuntzak hamar urteko eskolatzea hartzen du barnean, eta, oro har, sei urtetik hamasei urtera bitartean garatzen da eta pertsona guztientzat nahitaezkoa eta doakoa da.
- ▶ 2008ko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak, eskolara joateko betebeharra zehazten du 23. artikuluko 1. eta 2. ataletan:
  1. Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.
  2. Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze- eta puntualtasun-hutsegitez: ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez arrazoitzen ez dituztenak. Horretarako, ikastetxean ezarritako arauen arabera onargarria den justifikazioa aurkeztu beharra dago.
- ▶ 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, honako helburu hau jasotzen du 1. artikuluan: "Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egoiliarak zein pasadizokoak diren haur

eta nerabeei hau bermatzea: Konstituzioak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, Haurren Eskubideen Europar Gutunak eta zuzenbide-antolamendu osoak ezagutzen dizkieten eskubideak erabili ahal izango dituztela". Bestalde, 4. artikuluan jasota dago legearen oinarriko printzipio gidaria: "Haurren eta nerabeen interes gorena, haien eskubideen babesa eta eskubide horien garapenaren bermea izango dira gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haien buruz hartzen dituzten erabakien eta gauzatzen dituzten jarduketa guztien oinarriko printzipio gidariak. Orobat, haur eta nerabeekin zerikusi zuzena duten jarduketa publiko guztietan aintzat hartuko dira printzipio horiek, eta, zehazki, epaileek, herri-administrazioetako agintariek edo haur eta nerabeak zaindu eta babesteko erantzukizuna duten erakunde publiko edo pribatuek hartzen dituzten erabaki guztietan"

Programa hau arrazoitzeko eta garatzeko orduan, lege horretako 25. artikulua garrantzi handia du; 1. eta 2. ataletan jasotako zehaztapen hauek, hain zuzen ere:

1. Baldin eta agintariek edo herritarrek jakiten badute derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adinean dagoen haur edo neraberaren bat eskolaratu gabe dagoela edo, arrazoibiderik eman gabe ez dela eskolara joaten, eskumena duten herri-agintariei jakinarazi beharko diete, batez ere Hezkuntza Administrazioako agintariei, Toki Administrazioako erakundeei eta ministerio fiskalari, haurra edo nerabea eskolaratzeko, edo eskolara joanarazteko, beharrezkoak diren neurriak har ditzaten.
  2. Halaber, hezkuntza-zentroetako titularrek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari edo epaileari jakinarazi behar dizkiete haurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo horien arrisku-egoera ekar dezaketen egitateak, eta halaber adierazi beharko dizkiete horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izango direla bermatzeko behar diren datu guztiak; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko, baina betiere adingabeen lehentasunezko interesak izango dira kontuan.
- Gizarte zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak EAEko lege-esparruaren barruan laguntza eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzen du, Gizarte zerbitzuen euskal sistema arautzea eta ordenatzea bitarteko hartuta.

Legearen 3.4. artikuluan jasota dagoenaren arabera, Arrisku-egoeran edo babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeak Haurrak eta

Nerabeak zaintzeko eta Babesteko 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legean aurreikusitakoaren arabera baliatuko dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuez eta prestazioez.

- ▶ 230/2011 Dekretuak, 2011ko azaroaren 8koak, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duenak, babesgabetasun-tipologiak zehazten ditu, eta, besteak beste, prestakuntza-premieko arduragabekeria jasotzen du: babesgabetasunarekin lotutako arrisku larritzat jotzen du % 20tik % 50era bitarteko absentismoa, eta oso larritzat % 50etik gorakoa edo eskolagabetzea.

Aurreko testuek eskolara joateko betebeharraren zentraltasuna nabarmentzen dute, eta oinarritzko irakaskuntzaren derrigortasun-arauaren ondorioztat jotzen dute, bai eta Konstituzioak jasotako hezkuntzarako eskubidearen adierazpidetzat ere.



## **2.2. Hezkuntzarako eskubidearen eraginkortasuna gauzaten eta eskola absentismoa erauzten saiatu behar duten subjektuak**

Atal honetan, erakunde publiko guztien eskumenak aztertuko dira, eta, bestalde, gai honetan eskumena duen erakunde bakoitzak politikak eraginkorrak izan daitezela laguntzeko duen betebeharra ere aztertuko da. Halaber, erakutsi egingo dira adingabeen legezko ordezkariak betebeharrak, adingabeak babesteko neurriak, eta, zenbait kasutan, eginbehar hori zer neurritan betetzen den ere aztertuz, legezko ordezkariak eurak gizarteratzeko elementuetako bat dela kontuan hartuta.

### **2.2.1. Botere publikoak**

Hezkuntzarako eskubidearen erabateko eraginkortasuna botere publiko guztiek batera duten erantzukizuna da, Konstituzioaren I. tituluko II. kapituluan aitortutako gainerako eskubideen eta askatasunen bermea bezalaxe, 53.1 artikuluan jasotakoaren arabera. Bide beretik, 27.5 artikuluko guztiok hezkuntzarako dugun eskubideen bermatzaile bihurtzen ditu botere

publiko guztiak. Eskubide hori bermatzea erantzukizun partekatua da. Guztiei dagokie eskola-absentismoaren arazoa zuzentzea, absentismoak eskubide horren eraginkortasuna hausten baitu.

Horrek ez du esan nahi guztien erantzukizun maila berbera denik, ez eta aginpide edo eskumen berberak dituztenik ere. Euskal eskola publikoari buruzko Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoei esleitzen die hezkuntzarako eskubidea benetan gauzatzen dela bermatzeko beharrezko neurriak hartzeko zeregina, bakoitzak bere aginpideen esparruan (5. artikulua). Euskal Autonomia Erkidegoko botereak honako hauek dira: legebiltzarra, gobernu eta lehendakaria, Autonomia Estatutuko 24. artikulua araberako. Hala, bada, hezkuntzarako eskubidearen azken erantzukizuna eta eskumen nagusia autonomia-erkidegoko hezkuntza-administrazioari dagozkie; zehazki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura sailari. Horrenbestean, sail horri dagokie erabateko eskolatzea bultzatuko duten politikak onartzeko eta aplikatzeko nahiz eskola-absentismoa zuzentzeko erantzukizuna.

Baina horrelako politikak aplikatzeko erantzukizuna ez dagokie soilik hezkuntza-administrazioari. LOEk, 8. artikuluan, administrazioen arteko lankidetzaz hitz egiten du, eta hauxe jasotzen du: "Hezkuntza-administrazioek eta toki-korporazioek beren jardunak koordinatuko dituzte -bakoitzak bere eskumenen eremuan-, hezkuntzarako baliabideen eraginkortasun handiagoa lortzeko eta Lege honetan ezarritako helburuak lortzen laguntzeko".

Legeak berariaz esleitzen die toki-administrazioei zeregin osagarria edo lankidetzakoa. Zehazki, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak, 25.2 artikuluko n) atalean jasotakoaren arabera, udalerrak, beti, estatuko eta autonomia-erkidegoetako legerian ezarritako moduan, hainbat gairi buruzko eskumenak beteko ditu, eta, zehazki, honako hau: "Hezkuntzaren programazioan parte hartzea eta hezkuntza-administrazioarekin elkarlanean aritzea ikastegi publikoak sortzen, eraikitzen eta mantentzen; ikastegietako kudeaketa-organoetan esku hartzea, eta nahitaezko eskolatzea betetzeko zaintzan parte hartzea".

Hezkuntzarako eskubidea eraginkorra izan dadin guztiek modu bateratuan egin beharrekoa adierazten du aurreko ahapaldian jasotakoak. Hala eta guztiz ere, eskolagabetzearen eta eskola-absentismoaren arazoa beste maila batean ere hautematen da: adingabe bakoitzaren egoera pertsonalean, eta eremu horretan beste esku-hartze publiko batzuk egin behar dira. Adingabeak babesteko legeriak adingabeei laguntza egokia emateko eskatzen die herri-administrazioei, haiek beren eskubideak modu



eraginkorren gauza ditzaten (adingabearen babes juridikoari buruzko Lege Organikoko 10.1 artikulua), eta adingabeen garapen pertsonala eta soziala nahiz, babesgabetasun-kasuetan, horien tutoretza kaltetuko duten arrisku-egoerak aurreikusteko eta zuzentzeko ardura esleitzen die (12., 17. eta 18. artikulua). Zalantzarik gabe, eskolagabetasuna eta eskola-absentismoa arrisku-egoera horien arteko bi dira, lege-xedapen horren beraren 13.2 artikulua jasotzen duenez: “Baldin eta agintari edo herritarren batek jakiten badu adingabe bat eskolaratu gabe dagoela edo, arrazoibiderik eman gabe, derrigorrezko eskolaldian ez dela egunero eskolara joaten, eskumena duten herri-agintariei jakinarazi beharko die, haur hori eskolatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzaten”.

Ildo horri berari jarraitzen dio 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, lehen aipatutako 25. artikuluan.

Hala ere, arrisku-egoerak dakarren babesgabetasunak hainbat maila izan ditzake, eta, maila horien arabera, honela sailka daiteke babesgabetasun-egoera hori: babesgabetasun arina edo moderatua, eta babesgabetasun larria.

Kasu horietan, administrazioen esku-hartzea aldatu egiten da, egoeraren larritasunaren arabera: arrisku-egoeretan, oinarrizko gizarte-zerbitzuek hartu beharko dute kasua, eta, aztertu ondoren, balioetsi egingo dute eta orientazioa emango dute. Haurren babesgabetasun-egoera larria dela ondorioztatzen dutenean, haurrak eta nerabeak babesteko zerbitzu espezializatura bideratuko dute (3/2005 Legearen 53. artikulua). Babesgabetasun-egoera larria den kasuetan, lurralde bakoitzeko zerbitzu espezializatuak arduratuko dira kasu horietaz, eta ikertu eta balioetsi egingo dituzte, egoeraren larritasuna zehaztu ahal izateko. Arriskua arina edo moderatua den kasuetan eta esku-hartze espezializatu beharrezkoa ez denean, kasua oinarrizko gizarte-zerbitzuari bideratuko zaio (2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 54. artikulua).

Argitalpen honetako 2.1 atalean deskribatu dugun moduan, 230/2011 Dekretuak, 2011ko azaroaren 8koak, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duenak, babesgabetasun-tipologiak zehazten ditu, eta, besteak beste, prestakuntza-premieko arduragabekeria jasotzen du: babesgabetasunarekin lotutako arrisku larritzat jotzen du % 20tik % 50era bitarteko absentismoa, eta oso larritzat % 50etik gorakoa edo eskolagabetzea.

Aurreko guztiak adierazten digu eskola-absentismoaren eta eskolagabetzearen gaia hezkuntza-administrazioari dagokiola nagusiki, administrazio horrek bermatzen baitu hezkuntzarako eskubidearen erabateko eraginkortasuna, eta hori lortzeko oztopoak kendu behar ditu. Baina, bestalde, toki-administrazioko erakundeei ere badagokie ardua hori, legeak hezkuntza-administrazioarekin batera lan egiteko agintzen baitie; Foru Aldundiari ere bai, adingabea arrisku larrian edo babesgabetasun-egoeran baldin badago; eta Fiskaltzari. Arazo horrek eragiten dien botere publikoaren gainjartze horrek erakunde guztiek esku-hartze koordinatua egitera behartzen du, Konstituzioaren 103. artikulua arabera, herri-administrazio ororen jarduketan nagusi izan behar duen koordinazio-printzipioarekin bat etortzeko, eta, hala, Konstituzioaren agindu horrek berak jasotzen duen eraginkortasun-printzipioa bete dadin.

Koordinazio horren helburu nagusiak erakunde bakoitzak behar duen informazioa ematea izan behar du, 30/1992 Legeak, herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearenak, 4.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Baina lankidetzaren printzipioa, 3.2 artikuluan jasotakoa, ez da horretara mugatzen. Arau horrek berak xedatutakoari jarraiki, erakunde publiko guztiek ondorengo betebeharrak hau dute: "Norberaren eremuan lankidetzaren eta laguntza aktiboa eskaini gainerako administrazioei, beren eskumenak modu eraginkorrean baliatzeko eskatzen dutenean". Eta, oinarritzko mailan, 3.2 artikulua erakunde horiek honako betebeharrak hau dutela jasotzen du: "Ongi neurtu, norberaren eskumenak baliatzerakoan, ukitutako interes publiko guztiak, eta, zehazki, gainerako administrazioek kudeatu behar dituztenak".

Eskumenen erabileraren xedeak ez du soilik erakunde edo organo bakoitzaren helburuak lortzea izan behar; legeak agintzen du gainerako erakundeei beren helburuak lortzen laguntzeko moduan erabili behar direla eskumen horiek. Are gehiago, Konstituzioko 53. artikulua arabera, botere publiko guztiei eragiten dien oinarritzko eskubidea izanik.

### 2.2.2. Subjektu pribatuak

Jakina, ez dagokie soilik botere publikoei adingabeen hezkuntzarako eskubidea eta betebeharrak bermatzea. Lehenik eta behin, zeregin hori gurasoei dagokie (eta, gurasorik ez badute, tutoreei edo zaintzaileei), guraso-ahalaren bitartez; ahal horrek ondorengo hauek hartzen ditu barnean: "Seme-alabak jagotea, eurokin izatea, horiei mantenua ematea, seme-alabok heztea, eta, berebat, seme-alaba horiei oso-osoko heziketa

ematea"; halaxe jasotzen du Kode Zibileko 154. artikulua. Botere publikoei honako zeregin hau dagokie: "Guraso, tutore edo zaintzaileek euren erantzukizuna modu egokian bete dezaten zaintzea" (adingabeak babesteko Lege Organikoko 12.1 artikulua); erantzukizun horietako bat seme-alaba adingabeak eskolatzea da, eta eskolara joatera behartzea, lege horretako 13. artikuluan jasotakoari jarraiki.

Ilido horri berari jarraitzen dio 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, 22. eta 25. artikuluetan.

Betebehar horiek beteko ez balira, adingabeak babesteko ardua duen agintariak har ditzakeen neurriak askotarikoak dira. Lehen ere adierazi dugunez, legeria horrek ez du neurri horien edukia guztiz finkatuta, eta hainbat aukera eskaintzen ditu, arrisku-egoera zuzentzeko orduan egokienak baliatzeko. Neurri horietako azkena, zalantzarik gabe, adingabearen tutoretza bere gain hartzea litzateke, erabaki horrek guraso-ahalaren gainean eragin handia izango lukeelako, baina neurri hori har daiteke hezkuntzarako eskubidea bermatzeko beste biderik ikusiko ez balitz ere.

Hezkuntzarako eskubideak adingabeak ere behartzen ditu eskubide hori erabiltzera, paradoxikoa badirudi ere. Eskubide hori ez da borondatez erabiltzekoa, pertsonen eskubide gehienak halakoak izan arren; kasu honetan, eskubidea eta betebeharra da aldi berean, oinarritzko irakaskuntzari dagokionez behinik behin. Konstituzioak derrigorrezko eskolaldiari dagokion adina duten adingabe guztiei esleitzen die eskubide hori, haien onurarako, baina, neurri berean, baita gizarte osoaren onurarako ere. Izan ere, herritar guztiek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzeko duten aukera errazteko helburu konstituzionala (9.2 artikulua) Konstituzioaren oinarri diren askatasunaren, justiziaren eta berdintasunaren balio nagusien agerbideetako bat da (1. artikulua). Horri lotzen zaio eskolara joateko beharra, ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko dekretutik lehenago atera duguna. Hala, bada, gaur egun dugun sistema juridikotik aztertu beharko lirateke betebehar hori betetzen ez dutenek -nerabe aurrekoak eta nerabeak, normalean- jasango lituzketen ondorioak, betiere, adingabeak babesteko xedearekin.



3

Esku hartzeko  
programa





### 3.1. Honako termino hauen definizio operatiboa: eskolagabetzea eta eskola absentismoa

Arazo honi egoki ekiteko, behar-beharrezkoa da eskolagabetze eta eskola-absentismo, kontzeptuak modu operatiboan definitzea:

- ▶ **ESKOLAGABETZEA:** nahitaez eskolatuta egon behar duten adinean (6-16 urte) egon arren, ikastetxe batean matrikulatu gabe dauden adingabeen egoerari dagoki
- ▶ **ABSENTISMOA:** eskola-absentismoa inolako arrazoirik gabe behin eta berriro eskolara ez joatearekin lotuta dago; ez joate hori familiak berak onartua izan daiteke, edo familiak bultzatua, edota ikasleak bere kabuz erabakitakoa, nerabe aurrekoen eta nerabeen kasuan. Haurrek nahitaez 6 urtetik aurrera eskolatu behar badute ere, EAEn 3 urtetik aurrera eskolatzen dira haurrak normalean, eta, beraz, prebentzio izaeraz eta izan daitezkeen aldeak parekatzeko, matrikulatuta dauden Haur Hezkuntzako 2. ziklotik aurrera aplikatuko da absentismo kontzeptua. Horregatik, absentismoa Derrigorrezko Irakaskuntzan edo Haur Hezkuntzan gertatzen denean, esku hartzeko modua ere desberdina izango da: azken kasu horretan, datuak ez dira Fiskaltzara igorriko, jarduketa-protokoloetan gero ikusiko dugunez, eta adin horretatik aurrera haurrak eskolatzea sustatzeko helburuarekin erabiliko da, batez ere gizartean egoerarik okerrenean dauden herritarren kasuan.

Kontzeptu horren definizio operatiboan, lau termino hauek bereiziko dira:

- ▶ **Absentismo-tasa:** hilabetean justifikatu gabeko hutsegiteen ehunekoa da.

Honela zenbatuko da eskola-absentismoaren tasa: eskola huts egiten denean, hutsegite bat eskola egun osoari dagokio, eta beraz, soilik goizez edo arratsaldean joan ez bada, egun erdiz, hutsegite erdiztat hartuko da. Baldin eta justifikatu gabeko hutsegiteak saio solteei badagozkie, ikastetxeak haiek batuta zenbatuko du hilabete osoan zehar huts egindako egunei dagokien zenbatekoa.

- ▶ **Metatutako absentismoa:** eskola-ikasturteko ikasketa-egun guztiak kontuan hartuta izandako hutsegiteen ehunekoa da (175). Proposatutako programan absentismoa honako hutsegite-metatze tarte hauetan identifikatu da:

- ✓ %10era arte
  - ✓ >%10-%25
  - ✓ >%25-%50
  - ✓ >%50-%75
  - ✓ >%75-%100
- ▶ **Zuzendutako absentismoa:** ikasturte batean ikasle absentista izanda, hurrengo ikasturtean egoki eskolaratzen den ikasleen kopurua eta ehunekoa
- ▶ **Absentismo-indizea:** Ikastetxeko ikasle guztien artetik eskolara agertzen ez diren ikasleen ehunekoa da. Indize hori hezkuntza-etapen arabera zehaztuko da. Indize altuko ikastetxeetan modu berezian jokatu ahal izateko erabili ahal izango da indize hori.



### 3.2. Eskolagabetzea eta eskola absentismoa erabat erazteko lortu beharreko helburuak

- ▶ Derrigorrezko eskolatze-adinean dauden adingabeen hezkuntzarako eskubidea bermatzea, eskolagabetzea eta eskola-absentismoa saihesteko.
- ▶ Baztertuta dauden gizarte-inguruetatik datozen familiek 3 urtetik 6ra bitarteko adingabeak eskolara bidera ditzaten bultzatzea.
- ▶ Matrikulatuta dauden 3 urtetik 6ra bitarteko haurren eskolaratzea bultzatzea.
- ▶ Bertan esku hartzen duten profesionalak, gizartea eta, zehazki, bertan zuzenean parte hartzen dutenak gai horren larritasunaz ohartaraztea.
- ▶ Bertan esku hartzen duten erakundeek (Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura saila; Enplegu eta Gizarte politiken saila, udalak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Fiskaltza) koordinatuta lan egitea, eskolagabetzea eta eskola-absentismoa prebenitzeko eta bi horien aurka esku hartu ahal izateko.
- ▶ Eskolagabetze-egoera, eskola-absentismoaren egoera eta abian jarri diren esku-hartzeen eboluzioa balioestea.



### 3.3. Esku hartzea gidatzen duten printzipioak

- ▶ **Prebentzioa:** prebentzio-neurriak lehenetsiko dira, erreakzio-izaerako neurrien aurrean.
- ▶ **Ekitatea:** abiapuntuan desberdintasunen baldin badago -banakakoa, taldekoa, erkidegokoa- eta oinarrizko elementuak falta direnean, aukera berdintasuna eta bazterkeriarik eza bermatuko da. Erantzun pizgarri eta aberasgarriak eskaintzeko ahalegina egingo da, batik bat bizitzako lehen etapetan eragina izan dezaten.
- ▶ **Sarean lan egitea:** ardua duten erakunde guztien esku hartze koherentea, adostua eta koordinatua eskatzen da.
- ▶ **Arintasuna eta malgutasuna:** behar-beharrezkoa da erabiliko diren neurri eta prozedurak arinak eta eraginkorrak izatea.
- ▶ **Jarraipena eta ebaluazioa:** hartzen edo abian jartzen den neurri orok jarraipena izan behar du, eta esku hartzen duten alderdiek elkarrekin ebaluatuko dute horietako bakoitza, lortu nahi diren helburuetarako egokiak diren ikusteko eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartzeko.
- ▶ **Aukerak eta ongizatea garatzea:** oinarrizko beharrei erantzunez eta arazoei irtenbidea bilatuz egingo da aurrera, ongizate-aukera handiagoak garatu ahal izateko.

### 3.4. Erakunde parte hartzaileen jarduera

#### 3.4.1. Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila

##### a) IKASTETXEA

##### Curriculum-neurriak eta antolakuntzakoak

- ▶ Lehen Hezkuntzako irakasle aholkularien eta Bigarren Hezkuntzako irakasle orientatzaileei dagokienean, euren zereginen artean esleitzea

eskola-absentismoa desagerraraztera bideratutako jarduerak definitu, ezarri eta jarraitzea, irakaskuntza-taldearekin elkarlanean.

- ▶ Bazterkeria arriskuan dauden ikasleei dagokienean, euren ikastetxeetan proiektu inklusiboak garatzea sustatzeko aparteko neurriak diseinatu eta aplikatzea.
- ▶ Askotariko jarduera erakargarriak garatzea, nola ikaskuntza aldiaren barruan, hala horretatik kanpo, ikasleen interesa eta parte hartzea pizteko.
- ▶ Taldea edo ikasgelaren barruan laguntzak antolatzea, eskolagabetutako ikasleak hartzea eta eskolatzea erraztu ahal izateko.
- ▶ Banakako arreta berariaz emateko neurriak finkatzea adingabe absentistentzat, izan ditzaketen curriculum eta egokitze mailako desorekak gainditzen lagundu ahal izateko.
- ▶ Ikasgelan ikasleen bertaratzea jaso, idatzi eta jakinaraztea modu eraginkor eta sistematikoan antolatzea.

### **Absentismo-kasua hautematen direnerako protokoloa**

- ▶ Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan, ikasleek justifikatu gabe eskola huts egiten dutenean, tutorea harremanetan jarriko da familiarekin<sup>1</sup>.
- ▶ Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan, tutoreak ikaslearekin hitz egingo du justifikatu gabe eskola huts egiten duen lehenengo aldiaren, jokabide hori zuzendu eta prebenitzeko helburuarekin. Hutsegitea errepikatuz gero, tutorea harremanetan jarriko da familiarekin.
- ▶ Tutorea familiarekin elkartutakoan, hutsegiteen berri emango die eta jarduketa-plan bat adostuko du haiekin, hutsegiterik errepika ez dadin. Jokaera horren arrazoiak balioesteko gerta dakizkiokeen beste jakingarri batzuk ere bilduko ditu tutoreak. Horren guztiaren berri jasoko du idatziz, gero txostenak egin behar badira ere.

1 Familia bezala hartzen dira ikaslearen aita, ama edo legezko ordezkariak. Informazio egokia emateko, baldin eta aita-amak bananduak edo dibortziatuak edo elkarbitzita amaitu duten izateko bikote bateko kideak badira, informazioa eskatzeari eta eskola aldatzeari buruz EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Ikastetxeetako zuzendaritzaren argibideak jarraituko dira. [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dif3/es\\_2078/f3\\_c.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dif3/es_2078/f3_c.html)

- ▶ Tutoreak familiarekin hitz egiterik lortzen ez badu eta arazoak jarraitu egiten badu, ikastetxeko zuzendaritzak eskutitz bat bidaliko die, jaso izanaren adierazpenarekin batera, astebete baino gutxiagoko epean; bertan, arazoa azalduko zaie, eta hitzordu baterako dei egingo zaie.
- ▶ Baldin eta arazoak iraun egiten badu, ikastetxeko zuzendaritzak Udaleko gizarte zerbitzuei emango die egoeraren berri, egokia den jakinarazteko fitxaren bitartez. Jarduketa hori arazoa hauteman den lehenengo hilabetearen barruan egingo da
- ▶ Ikastetxeko zuzendaritzak bere gain hartuko du ardura, Udalak zehaztuko duen ordezkariarekin batera, egokia den Udaleko gizarte zerbitzuarekin elkarlanean esku-hartze plana osatzeko eta haren jarraipena egiteko.
- ▶ Baldin eta jokabide absentista hiru hilabeteko epearen barruan, gizarte eta hezkuntza zerbitzuek elkarrekin esku hartzea eginda ere, desagertzen ez bada, ikastetxeko zuzendaritzak txosten bat egingo du eta Hezkuntza Ikuskaritzara bidaliko du kasu hauetan:
  - ✓ Lehen Hezkuntzako lehenengo ikasturteko ikasleak.
  - ✓ Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igaro diren ikasleak
- ▶ Baldin eta hilabeteroko sei erregistrotan zehar Oinarritzko Hezkuntzako beste ikasturte batzuetan eskolatutako ikasleek huts egiten badute eta gizarte eta hezkuntza zerbitzuek elkarrekin esku hartzea eginda ere desagertzen ez bada, ikastetxeko zuzendaritzak txosten bat egingo du, eta Hezkuntza Ikuskaritzara bidaliko du
- ▶ Ikastetxeko zuzendaritzak berariaz finkatutako “oharrak eta hutsegiteak” aplikazio informatikoa beteko du, Ikuskaritzako buruzagitzaren absentismo-zirkularrak eskola-ikasturte bakoitzaren hasieran zehaztutakoaren arabera<sup>2</sup>.
- ▶ Ikastetxeek, euren ikasleengan hautemandako beste balizko arrisku-egoera batzuetako jakinarazpen eta esku-hartze prozesuak errazteko, etengabekokomunikazioamantendukoduteudalekogizartezerbitzuekin.

2 Hezkuntza sailak aurrera jarraitzen du kudeatzeko prozesu guztiak teknika eta informatika mailan hobetzen jarraitzeko, informazioaren jarraipen, kontrol eta transmisio eraginkorra nabarmen hobetzen duten hainbat on-line aplikazio garatuz. Txertatzen ari den aplikazio informatiko horietako bat da, hain zuzen, eskolara bertaratzearen kontrolekoa. Horri esker, ikastetxe, familia, eta, hala dagokionean, gizarte eragileek absentismoa jarraitu eta kontrolatu ahal izango dute, esku hartze bizkorra eta eraginkorra arindu, hobetu eta lortzeko helburuarekin.

Harreman horretan, partekatutako informazioaren konfidentzialtasuna eta adingabekoen nahiz euren familien pribatutasuna bermatu egin beharko da.

### **Beste zerbitzu eta erakundeekin lankidetzaz**

- ▶ Lanbidek eskatuz gero, ikastetxeak ikasleen eskolatzea eta egiazko eskolaratzeari buruzko berriak emango ditu. Halaber, matrikula lekualdatzeak edo beste egoera esanguratsu batzuk izanez gero, orduan ere Lanbideri jakinaraziko dizkio.
- ▶ Susmoa baldin badago ikasle bat eskolara ez joatearen arrazoia familiak jakinarazi gabeko etxe-aldaketa bat dela, eta baldin eta historia akademikoa eskatu ez bada, ikastetxeak gizarte zerbitzuei jakinaraziko die, egokiak diren izapideak egin daitezzen.

### **b) LURRALDE ORDEZKARITZA**

- ▶ Hezkuntzako lurralde ordezkariak udal zerbitzuen eskakizunak artatuko ditu, ikastetxeekin erakunde artean beharrezko koordinazioa finkatu edo indartzeko helburuarekin.
- ▶ Ikuskaritzako Buruzagitzak ikasturte hasieran jarduketa-protokoloa adierazten duen absentismo-zirkularra igorriko die ikastetxeei, eskolagabetzeari eta eskola-absentismoari buruzko datuak bil ditzaten.
- ▶ Hezkuntza Ikuskaritzak irailean zehar “aurrematrikula/matrikula kudeaketa akademikoa” aplikazio informatikoan aztertuko ditu aurreko ikasturtean eskolatuta izan eta eskolatuta izateari utzi dioten ikasleen datuak.
- ▶ Plangintza zerbitzuari dagokion Udalak eskatuta, derrigorrez eskolatzeko adineko ikaslea matrikulatuta ez egotearen susmoa eragiten duten kasuak egiaztatuko dira.
- ▶ Ikasturte hasieran absentismoa eta eskolagabetzeari buruzko bilerak bultzatuko ditu ikastetxe, oinarrizko gizarte zerbitzuetako arduradun edo udaletxe bakoitzak eremuka zehaztutako taldeek zuzendaritza taldeekin edo bereziki erasandako ikastetxeetako klaustroekin.
- ▶ Absentismoaren aurka jotzeko bereizte programak diseinatzerakoan, Berritzeguneei aholkua emango diete ikastetxeei, eta, egokia izango balitz, programa horietan (absentismo tipologiak eta arrisku-egoerak)

inplikaturako irakasleentzako prestakuntzako berariazko plana osatuko dute..

- ▶ Ikastetxeek Hezkuntza ikuskaritzara ikasleei buruzko txostena bidalitzeko, ikuskaritzak bere egoitzetara joateko deituko dituzte familiak ondorengo kasu hauetan:
  - ✓ Berariaz egindako aplikazio informatikoan matrikulatuta agertu gabe, Lehen Hezkuntzatik Bigarrenera pasatzen diren ikasleak, baldin eta 15 eguneko epean ikastetxe berrian matrikularik egin ez badute.
  - ✓ Lehen Hezkuntzako lehenengo ikasturteko ikasle absentistak, hiru hilabeteko epean hutsegiteari uzten ez badiote.
  - ✓ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo ikasturteko ikasle absentistak, hiru hilabeteko epean hutsegiteari uzten ez badiote.
  - ✓ Oinarrizko Hezkuntzako beste edozein ikasturtetako ikasleak, sei hilabeteko epean hutsegiteari uzten ez badiote.
- ▶ Hezkuntza ikuskaritzak egokia den txostena egingo dio Hezkuntzako lurralde ordezkariari arazoa konpontzen ez den kasuetan, Fiskaltzara bidaltzeko eskatuz.
- ▶ Lurralde ordezkariak Fiskaltzara bidaliko dituzte dokumentatuta dauden ikasle absentista edo eskolagabetuen espedienteak, Kode zibileko 158. artikuluko 3. puntuan jasotzen den Ministerio fiskalaren esku hartzea eskatuz.

### **c) HEZKUNTZAKO SAILBURUORDETTA**

- ▶ Hezkuntzarako eskubidea gogoratzen duten publizitate-kanpainak egitea, absentismoaz arduratzen den batzordean ordezkariak dauden gainerako erakundeekin batera.
- ▶ Ikasturte hasierako Ebazpenean, kapitulu zehatz bat txertatzea honako alderdi hauei buruz: hezkuntzarako eskubideaz, ikasleek arrazoirik gabe eskola huts egiten dutenean hutsegite horien berri eman beharraz eta berorien berri udalei eta Hezkuntza Ikuskaritzari eman beharraz
- ▶ Ikasturte bakoitzaren antolakuntzari buruzko Ebazpenetan, Lehen Hezkuntzako irakasle aholkularien eta Bigarren Hezkuntzako irakasle orientatzaileen zereginei dagokien atalean, zeregin berri hau erantsiko

da: "irakaskuntza taldearekin elkarlanean aritzea eskola-absentismoa desagerraraztera bideratutako jarduketak definitu, ezarri eta jarraitzean."

- ▶ Ezinbestean ikasgelara joateko beharra eta familiek hori betetzeko erantzukizuna jasoko duen dokumentua osatuko du. Dokumentu hori ikastetxeetan entregatuko da, aurrematrikularen dokumentazioarekin batera.
- ▶ Eskola huts egiten duten adingabeei erantzuteko neurri espezifikoak sustatzea, batez ere egoera sozial eta kultural zaila bizi dutenean, ikastetxean ahalik eta modurik normalizatuenean integra daitezen.
- ▶ Udalekin batera, eskolaz kanpoko jarduerak egitera bultzatzea.
- ▶ Haur Hezkuntzan eskolatzeko bidea sustatzea, batez ere absentismoa pairatzeko arrisku handienak dituzten familietan.

### 3.4.2. Udaletxeak

#### Prebentzio neurriak

- ▶ Informazioa emango zaie familiei eskolatze goiztiarrak dakartzan abantailez, 6 urtetik aurrera ezinbestean eskolatu beharraz eta matrikulatu aurreko egunak baino lehenago udalerrian dauden ikastetxeez.
- ▶ Ezinbestean eskolatzeko adinean dagoen ume bat matrikulatuta ez egotearen susmoa dagoen kasuetan, kasua egiaztatzeko eskatuko da Hezkuntzako lurralde ordezkartzako plangintza zerbitzuan.
- ▶ Udaleko gizarte zerbitzuek artatutako familia guztien historia sozialean erantsiko dute adingabeko kideen eskolatzeari egiaztatzearen datua.
- ▶ Udaltzaingoak euren jarduketa-protokoloetan sartuko du eskola-ordutegian ikastetxetik kanpo ikusten dituen haur eta nerabeak identifikatzea. Informazio hori dagozkien udal zerbitzuetara helaraziko da..
- ▶ Ahal den neurrian, udal erroldan izena ematen duten adingabekoen guraso edo arduradunei jakinaraziko zaie nolako erantzukizuna duten eskolatzean, eskolara joatean eta Udalak zer zerbitzu dituen

familiei laguntzeko eta udalerrian bizi diren adingabekoak eskolatzea bultzatzeko.

### **Antolamendua**

- ▶ Udal zerbitzuek Hezkuntzako lurralde ordezkariak eskatutakoa egingo du ikastetxeetako zuzendaritza taldeekin proposatutako informazio-jarduera guztietan.
- ▶ Gizarte zerbitzuak, edo, hala baldin badagokie, Udal zerbitzuak eta ikastetxeak etengabe elkarrekin komunikatuta izango dira. Horrela, udalerrietan hautemandako arrisku-egoeretan ohartarazteko eta esku hartzeko prozesuak erraztuko dira, partekatutako informazioaren konfidentzialtasuna eta adingabeen nahiz euren familien pribatasuna bermatuz.
- ▶ Udal zerbitzu guztiek bermatuko dute hauteman edo jakinarazitako babesgabetasuneko arrisku-egoera izan litekeen bati buruzko edozein informazio Udaleko gizarte zerbitzuei helaraziko dietela.

### **Udaleko jarduketa-protokoloa**

- ▶ Familiekin finkatuko diren Arreta pertsonaleko planetan, Udaleko gizarte zerbitzuek lehentasunezko helburutzat sartuko dute eskolatzea eta eskolara joateko adingabeko pertsonak duten eskubidea bete izana bermatzea.
- ▶ Ikastetxeen jakinarazte-fitxa baten bitartez Udaleko gizarte zerbitzuetara bideratuta, adingabe absentista, eskolagabeko edo beste arrisku-adierazle batzuk dituztenen kasuan, Oinarrizko gizarte zerbitzuko gizarte langile arduradunak informazioa iturriarekin egiaztatu beharko du lehenik. Guraso edo legezko ordezkariarekin hitzordua lotuko du, eta, egokia baldin bada, adingabeen eta familiaren hurbileko beste iturri batzuetatik informazioa jasotzeari ekingo dio, BALORA tresna erabiliz, balizko arrisku-egoera balioesteko helburuarekin.

Egokia den moduan ikerketa, balorazioa eta diagnostikoa egin ondoren, lau egoera izan daitezke:

- ✓ Familiak birbideratu du egoera, eta ez dago udaleko gizarte zerbitzuek esku hartzea eskatzen duen arrisku-egoerarik. Esku hartzea bukatutzat jo da.

- ✓ Babesgabetasunarekiko zaurgarritasun egoera edo arrisku arineko egoera dagoela erabaki da. Familiari edo, egokia baldin bada, adingabeari berari proposatu zaio prebentzioko esku hartzea edota erkidegoko beste baliabide batzuetara bideratzea.
- ✓ Arrisku ertaineko egoera dagoela erabaki da. Ebaluazioaren berri eman diete guraso edo legezko ordezkariari, eta erkidegoko baliabideekin koordinatutako arreta pertsonalizatuko plana hitzartu da familiarekin. .
- ✓ Arrisku larriko egoera dagoela erabaki da. Oinarrizko gizarte zerbitzuak Bizkaiko Foru Aldundiko Haurtzaroren zerbitzura bideratuko du kasua, babes neurri egokiak har ditzan.

Aipatutako lau hipotesietan, oinarrizko gizarte zerbitzuak egoera balioetsi ondoren hartutako erabakien berri emango dio idatziz ikastetxeari, eta, egokia baldin bada, beharrezko loturak eta koordinazioak gauzatuko dira egoerari elkarrekin aurre egiten ahalegintzeko eta adingabearen egoeraren jarraipena egiteko. Jarraipena banakako esku hartzeko planean jasoko da (4.2. eranskina).

- ▶ Udaleko gizarte zerbitzuek hautemandako adingabe absentista edo eskolagabeen kasuan, dagokion Oinarrizko gizarte zerbitzua harremanetan jarriko da ikastetxearekin, aurreko paragrafoaren arabera koordinatutako jarduketak finkatzeko

### **3.4.3. Bizkaiko foru aldundia (gizarte ekintza saila**

#### **Prebentzio neurriak**

- ▶ Oinarrizko gizarte zerbitzuekin batera, eskola-esparruan Gizarte zerbitzuen eta Haurtzaroko zerbitzuaren jarduera eta konpetentzia esparruei buruzko informazioa ematea eta zabaltzea
- ▶ Haurren babesgabetasunaren esparruan esku hartzen duten profesionalak sentsibilizatu eta prestatzeko jarduerak bultzatzea
- ✓ Berriazko ikastaroak ematean parte hartzea..
- ✓ Haurren babesgabetasun egoerekin lan egitea gerta dakiekeen profesionalentzat, aktiboak izan nahiz ikasten ari direnak izan,



horrelako egoeretan modu koordinatuan hauteman, jakinarazi eta esku hartzeko prestakuntza txertatzeko eskatzea.

- ✓ Haurren babesgabetasun egoeretan kolektibo horrek modu koordinatuan hauteman, jakinarazi eta esku hartzea bultzatzera bideratutako dokumentuak diseinatu eta argitaratze.
- ▶ Beste administrazio publiko batzuekin batera, haurrak eskolatzera bideratutako sentsibilizazio kanpainetan parte hartzea.

## Umeen zerbitzuaren esku hartze

### a) ANTOLAMENDUA

- ▶ Lehentasunezko aurreneko helburua aita-amak guraso eginkizunean gaitu edo osatzea izango da, euren seme-alabak egoki zaindu ditzaten eta familia-unitatea babesten jakin dezaten.
- ▶ Espezializatutako balia bideak ume eta nerabeen beharretara egokituko ditu, hala nola, familian esku hartzeko programak garatzea, familia-harrerako balia bideak garatu eta egokitzea, egoitza-balia bideak egokitzea, eta abar. Ume eta nerabeek euren oinarrizko beharrak asetzeko moduko inguru egonkor eta segurua emanaz, haien eskubideak zaintzea da helburua.
- ▶ Umeen zerbitzuak ziurtatuko du babesgabetasun egoeran bizi diren umeekiko hartutako erabakiak irizpide homogeenetan eta teknikoki baliozkoak eta adostuak diren irizpideetan oinarritutakoak izatea..
- ▶ Umeen zerbitzuak koordinatzaile bat esleituko dio familia, ume edota nerabe bakoitzari.
- ▶ Arrisku larria eta babesgabetasuna dagoen egoeretan esku hartzerakoan, gizarte, osasun eta hezkuntza zerbitzuekin inplikazioa eta koordinazioa sustatuko ditu.


### b) JARDUKETA-PROTOKOLOA

- ▶ Esku hartzeko prozesuaren edozein unetan gerta daiteke Udal zerbitzuen eta Umeen zerbitzuen artean kasuak bideratzea, eta ohiko izaera edo larrialdi izaera izan dezake.
- ▶ Kasu guztietan, bideratzea txosten idatzi baten bitartez egingo da, eta hari erantsiko zaizkio garrantzitsutzat jo diren txosten eta dokumentu

osagarri guztiak -esaterako, osasun, eskola, polizia txostenak-. Babesgabetasun tipologiaren hasieratik bertatik, informazioa jasoko da eta aintzat hartuko da euren eboluzioa. Nolanahi ere, larritasuna balioesteko pisu nagusia ama, aita, tutoretza edo zaintza bere gain duenak duen portaeraren ezaugarriek izango dute. Kontuan hartuko da portaera horrek balioesteko unean, azkeneko sei hilabeteetan, alegia, umea edo nerabearengan izan duen eragina.

- ▶ Baldin eta Udaleko gizarte zerbitzuek kasua Umeen zerbitzura bideratuko balute, horrek erreferentziako profesionala esleitu luke gehienez bi aste epean. Epe horren barruan, hark zerbitzu bideratzaileari idatziz jakinaraziko dio bera erreferentziako profesional bezala esleitu dutela, eta bideratzeko txostena hartu izana berretsiko du.
- ▶ Balora tresnan jasotako irizpideak jarraituz, Umeen zerbitzuak gehienez hilabeteko epean erabakiko du kasuan esku hartzea bereganatuko duen ala ez. Horren berri idatziz emango dio zerbitzu bideratzaileari. Desadostasunak izan daitezke babesgabetasunik izan al den erabakitzerakoan; hala izan bada, larria izan al den jakin beharko da, eta, horren ondorioz, esku hartzearen ardura nagusia bere gain hartzea zer zerbitzuri dagokion. Kasu bakoitza zehaztasunez aztertu eta egin beharreko esku hartzearen inguruan adostasuna lortu ahal izateko, bi zerbitzuen arteko bilera egingo da. Bitartean, familiarekin esku hartzea zerbitzu bideratzailearen ardura izango da orduan ere, eta behar diren esku hartzeko baliabideak mantenduko ditu..
- ▶ Umeen zerbitzuak behar diren jarduketak gauzatu dituzten abian jartzeko eskatutako lege- edota administrazio-neurriak, umea eta familiarekiko baliabideak eta esku-hartzeak. Banakako arreta plana hasiko du, eta bertan kasu bakoitzera egokitutako baliabide espezializatuak izango dira, lehentasuna emanez familia-esparruko hezkuntza esku-hartzeari; batik bat arrazoi eskola-absentismoa den kasuetan.
- ▶ Umeen zerbitzuak aurreikusi edota egindako esku-hartzeen berri emango dio dagokion Udaleko gizarte zerbitzuari.

### 3.5. Esku hartzearen fluxu-diagrama



\* Erakunde bidaltzaileari idatziz jakinaraziko zaio erakunde hartzaileak egindako jarduketak.



### 3.6. Programaren iraupena

Programak hiru ikasturteko iraupena izango du, proposatutako helburuak lortzea balioesteko denbora-tartetzat epe horixe hartuta. Nolanahi ere, programaren ebaluazioak beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak ezartzeko aukera emango du.



### 3.7. Programaren ebaluazioa

Hainbat erakunderen artean adostutako esku hartzeko programa honi jarraipena egingo zaio eta ebaluatu egingo da, bide horretatik helburu bakoitza lortu izana egiaztatzeko eta esku hartzen duten erakunde bakoitzari hobetzeko jarraibideak eman ahal izateko.

Esku hartzen duen erakunde bakoitzeko ordezkariak batzordea osatuko dute, eta batzorde hori arduratuko da jarraipena eta ebaluazioa egiteaz.

Batzorde hori, ikasturte bakoitzean, hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez, eta urteko txostena egingo du, honako alderdi hauek bertan jasota:

- ▶ Absentismo-tasak eta eskolagabetze-indizeak nahiz Bizkaiko lurralde historikoan izan duten bilakaera.
- ▶ Jokabide absentistaren inguruan esku-hartzeari buruko azterlanak, ikerketak eta esperientziak.
- ▶ Programan modurik zuzenenean parte hartzen dutenen iritzia (ikastetxeak, dagokien udal-zerbitzu eskumendunak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza saila).
- ▶ Hobetzeko proposamenak.

4

Eranskinak




## 4.1. Jakinarazteko fitxa eredu


### JAKINARAZTEKO FITXA


Eguna	
-------	--

#### Jakinarazlearen datuak

Izen-abizenak:	Kargua edo postua:
	E-maila:

#### Ikaslearen datuak

Izen-abizenak:	Jaiotza data:
	Sexua:
Helbidea:	
Udalerrria:	

Ikastetxea:	
Ikasturtea:	Hizkuntza eredu:
Familia-unitateko anai-arrebak:	

#### Arduradunak (ama, aita, tutorea, edo bestelakoren bat)

Izen-abizenak:	Ahaidetasuna	Elkarbizitza BAI/EZ	Tel. edo e-maila	Helbidea

#### Jakinaraztearen arrazoia (absentismoarekin lotutako arazoen deskribapen laburra)

--

#### Bideratzen duen zerbitzu edota zentroak egindako jarduketak

--

Ikaslearen arduradunek jakinarazte hau ezagutzen al dute? Bai  Ez

### Aipagarritzat jotako beste informazioaren bat

--

Informatu edo bideratu duen profesionalaren sinadura	Ikastetxeko zuzendariaren sinadura
--	------------------------------------

## INFORMAZIO ERANTZUKIZUNA

“Hezkuntza-zentroetako titularrek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari edo epaileari jakinarazi behar dizkiete haurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo horien arrisku-egoera izan daitezkeen egitateak. Halaber, horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izango direla bermatzeko behar diren datu guztiak jakinarazi beharko dizkiete; orobat, elkarlanean aritu beharko dute aipatutako administrazioekin horrelako egoerak ekiditeko eta konpontzeko, baina betiere adingabeen lehenetsuneko interesak izango dira kontuan”. Umeak eta nerabeak zaindu eta babesteko 3/2005 Legearen 25.2. artikulua.

## IKASTETXEETAKO DATUAK GIZARTE ZERBITZUEI EMATEAREN LEGEZKOTASUNA

Ikastetxeetako titularrek eta langileek ez dute alde zuzenik ikaslearen gurasoen -tutore edo arduradunen- baimenik behar honetarako:

- Adingabeko pertsonak bizi ditzaketen babesgabetasun egoerak Gizarte zerbitzuei jakinaraztea.
- Gizarte zerbitzuak adingabeko pertsonak bizi ditzaketen gizarte-babesgabetasun egoeretan betetzen ari daitezkeen ikertzeko edota ebaluatzeko prozeduren barruan, Gizarte zerbitzuei idatziz jakinaraztea ikasleaz nahiz bere gizarte eta familia egoeraz haiek eskatutako datu eta informazio beharrezko eta nahikoak.

Hori guztia Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 6.1 eta 11.2.1. artikuluetan finkatutakoaren arabera, ondorengo xedapenei dagokienean:

- Kode zibila (172. artikulua).
- Adingabearen babes juridikoari buruzko 1996ko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege organikoa (13, 14, 16, 17 eta 18. artikulua).
- Eusko Legebiltzarreko Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legea (25, 52, 54 eta 58.1.a artikulua).



## 4.2. Esku hartzeko plana egiteko jarraibideak

Esku hartzeko planean honako alderdi hauek jasoko dira:

- ▶ Lortzeko helburuak.
- ▶ Egiteko jarduketak.
- ▶ Epeak.
- ▶ Inplikaturako aldeetako bakoitzak (familia, udaleko gizarte zerbitzuak eta ikastetxea) sinatutako konpromisoak
- ▶ Bideratzea edo esku hartzea ixtea.

Bideratzea     Ixtea

Bideratzen den erakundea: \_\_\_\_\_

Bideratze-eguna: \_\_\_\_\_ Ixteko eguna: \_\_\_\_\_

Bideratzeko edo ixteko arrazoia \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_





## 4.3. Bideratzeko eskutitz ereduak

### **Ikastetxeko zuzendariak ikasle absentisten gurasoei bidaltzeko eskutitz ereduak**

Familia agurgarria:

Hezkuntza da gure ondasunik estimatuenetako bat, izan ere gizakiok gizartean bete-betean bizitzeko gaitasunak jasotzeko bitartekoa baita. Horrenbestean, betebeharrak eta eskubide ukazina da hezkuntza, eta herritar nahiz erakunde guztion egitekoa da ahal dugun baldintzarik onenetan hori gauzatzea..

Ikastetxeak, familiak eta gizarteak zaindu beharreko ondasuna denez, elkarrekin koordinatuta egin behar dugu lan, ziurtatzeko adingabe guztiek prestatzeko eta norbanako zein gizarte mailan garatzeko aukera hori izatea. Horregatik, justifikatu gabe ikastetxera ez joatea adingabearen hezkuntza premiekiko arduragabekeriaz jokatzeko da.

Hori dela eta, jakinarazten dizuet zuen seme/alabak, .....  
..... ikasleak justifikatu gabeko ..... hutsegite izan dituela.  
Zuen seme/alabaren tutorea behin eta berriz saiatu arren, ezin izan du zuekin harremanetan jarri. Horrenbestean, ikastetxean gurekin bilera bat egiteko deitzen dizuet  
..... egunean,..... e(t)  
an.

Gai horren inguruan, ondorengo aginduak gogorarazi nahi dizkizuet:

- \* Lehenengoz, adingabeen gurasoek edo legezko tutoreek derrigorrezko hezkuntzako etapetan -6 urtetik 16 urtera bitartean- adingabeak ikasgelara etenik gabe joatea bideratzea, osasun, garbitasun eta elikadura baldintza onetan.
- \* Eta bigarrenkoz, ikastetxearen aurrean eskolatze-hutsegite guztiak justifikatzeko betebeharrak, arrazoiak edozein direla ere.

Azkenik, jakinarazten dizuet jarritako hitzordu honi erantzuten ez badiozue, .....  
..... ikastetxeko zuzendari naizen aldetik, nire betebeharrak dela auzi honen berri udalerrri honetako Udaletxeari eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko ikuskaritzari ematea, erakunde horiek egokiak diren neurriak har ditzaten.

Adeitasunez,

Lekua eta eguna

ikastetxeko zuzendaria

Sin.: .....

### Ikastetxeak udaletxera bideratzeko eskutitz eredua

\_\_\_\_\_ (e)ko  
Udaleko Gizarte zerbitzuetako saila.

Bizkaiko udalerrietan eskolagabetzea eta eskola-absentismoa erazteko plana garatuz, EUDEL, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak izenpetutako hitzarmenaren arabera,

\_\_\_\_\_ Jn./And

\_\_\_\_\_ ikastetxeko zuzendari naizenak,

ikastetxean izapide egokiak eginda, \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_ ikaslearen  
JAKINARAZTEKO,

FITXA bidali dizut Udaleko Gizarte zerbitzuetatik edo egokiak iruditzen zaizkizun taldeetatik esku har dezazuen

Adierazteko besterik gabe, adeitasunez



## 4.4. Hileko absentismoa erregistratzeko orria

(dagokion aplikazio informatikoaren inprimakiak ordezkatzeko du orri hori)



### REGISTRO MENSUAL DE ABSENTISMO ESCOLAR

(Absentismo: inasistencia del 20% o más de los días lectivos del mes)

CODIGO DE CENTRO: \_\_\_\_\_  
 NOMBRE DE CENTRO: \_\_\_\_\_

CURSO: .....  
 MES: .....  
 TOTAL DÍAS LECTIVOS DEL MES: .....

Apellidos y nombre del alumno, alumno (1)	Fecha de nacimiento	Sexo (2)	Curso (3)	Nº Faltas (4)	Nº Abs. Esc. (5)	Comunic. Ayunt. (6)	Causas de absencias (7)	Observaciones (8)

# Hezkuntza eskubidea bermatzeko programa

ESKOLAGABETZEA eta ESKOLA-ABSENTISMOA  
ERAUZTEA BIZKAIKO LURRALDEAN



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



HEZKUNTZA UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAIA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION